

ABERTZALETASUNA GAUR

Abertzaletasuna zer dan

Guk uste gendun abertzaletasuna aberri baten bizi diranak euren lurrari eta lur gainean bizi diranai dautsen maitasuna zala.

Eta maitasun ori barru-barruan geunkan, poza emoten euskun, aberrikideai maitasuna izaten geuntsen, eta aberritik kanpora joaten giñanean, geure nortasuna ez gendun galtzen, bestei geure izakerea zabal agertzen geuntsen.

Ortik ez etorren gutzat arazo larririk.

Gaurko arriskua

Gaurko askorentzat gauza ori ez dago ain argi. Abertzaletasuna gauza txarra dala, gudak sortzen dauzala, erriak banandu egiten dauzala ta olakoak entzuten dira.

Abertzalea ei zan Franco España osoa aberri bat zala, berea, uste ebalako eta antzera Lenin edo De Gaulle.

Bakean bizi nai ba'da, aberria ta abertzaletasuna aitzu egin bear ei dira.

Olakorik!

Gu lengo lekuan

Baiña gu lengo lekuan gagoz.

Euskaldun jaio gara, Euskalerrria ta euskaldunak maite doguz eta euren izkuntza, oiturak, ekanduak, izaera... zaintzen eta indartzen alegintzen gara.

Ba-dakigu ori arlo zabala dana, ba-dakigu olako gauza asko galtzen doazena, eta olako jazoerak poza emoten dautse gure arerioai, guri osteria samintasuna. Gauza orreik giza-balioak dira eta giza-balioak galtzen diranean, gizona bera da galtzen dana.

Ez iñoren aurka

Gu ez goaz iñoren aurka baiña itzi begiskue espāñatarak eta frantziarrak, euskaldun guztiak, iparraldekoak eta egoaldekoak, naparrak barru dirala, aberri bat izaten eta geuk nai ba'dogu laterri bat sortzen.

Ez begie uste izan euren aurka goazenik. Geurea zaintzen dogu, eta orixe da bakerako bide bakarra.

Frantziarrak Frantzian eta espāñarrak Espāñan eta euskaldunak Euskalerrrian. Bakoitza bere lekuan eta bakean.

Laterri izateko eskubidea

Letonia, Lituania Estonia naiz beste edozein aberrik eskubidea ei dauko laterri izateko. Eta oraintsu lortu be egin dabe batzuk. Izan be ori da Laterri-arteko eskubideen arteko bat.

Eta eskubide ori zergaitik ez daukagu euskaldunak?

Ala ez ete gara gu aberri bat? Ori be ukatu egingo ote dauskue?

Aberria gara

Gure eskubide au eskuratzean zer-galdu daukenak laster esango leukee eta esaten dabe gu ez garala aberria.

Baiña guk ba-daukagu geure izkuntza, geure kondaira, geure ekonomia, geure oiturak eta ekanduak, geure izakera, geure endea, geure erlejiñoa, gaurkoa ta antxiñakoa... Zer geiago bear ete dogu?

Eta ez begiskue esan gure artean ba-dagozela euskaldunak ez diran asko. Euskalerrria etorri ezkerro, emengo aberriari eragozpenik ipiñi barik lagundu egin bear dautsoe, geuk kanpora goazenean egin bear dogun lez. Eta emen betiko geratzeko ustean etorri badira bertokotu be bai, emengo izkuntza eta beste berezitasunak artuta.

Abertzale ta bakezale

Euskaldunok izan gaitezcan abertzaleak eta abertzaletasunagaz batera baita Europa-zaletasuna be indardu dagi-gun, mundu-zaletasuna be bai.

Gorrotu barik, banakuntza barik, guda barik... Bakezale eta gogorkeriaren arerio, baiña iñoz geurea ukatu barik.

Auñamendiko Lorea Elebarrian Txomin Agirre'k ederto diñoan lez, goikoak goian bekoak beian, bakoitza bere lekuan.

Abertzaletasuna ez da politika, politika guztien eta alderdi guztien gainetik dagoan gauzea da eta euskaldun guztiak Euskalerrria ta onen eskubideak maitatu bear dabez.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK